



Festa eta lagun giroan Guinness errekor berria ezartzea helburu

TOLOSA ▶ Etzi hasiko du erronka Carlos Peña igerilari tolosarrak; baikor eta zuhur mintzatu da

LAGUNTZA ▶ «Jendearen babes» eskertu du; harekin igeri egiteko bihar arte eman daiteke izena ▶ 2

IBARRA ▶

Hitzarmena sinatu dute HITZAK eta Udalak

Datozen hiru urteetan elkarlanean ariko dira ▶ 6

LEITZA ▶

Matrikula egiteko tenorea IKA euskaltegian

Euskara ikastaroetan izena emateko epea zabaldu dute ▶ 7

TOLOSALDEA ▶

Gaur, Autorik Gabeko Eguna ▶ 4



Etxebizitza eremuak eta industriakoak, bananduta

IRURA ▶ Irurako Udalak arau subsidiarioen berrikusketaren aurrekaria aurkeztu berri du jendaurrean. Marimi Ugalde alkateak zaldu duenez, «etxebizitzetako eremuak eta industriakoak ondo bereiztuta egotea da berrikusketaren xedea». Horrela, Zabalguner lur eremuan etxebizitzak eraikitzeak aukera izango da,

eta baita beste hainbat eremutan ere; guztira, 400 etxebizitza berri aurreikusi dituzte. Industriagunean ere aldaketak egingo dituzte, pabilioien antolaketa hobetzeko eta trafikoaren mugikortasuna errazteko. Herritarrek aurrekaria kontsultatzeko eta iradokizunak aurkezteko aukera dute, urriaren 10a arte. I. GARCIA ▶ 4

NORA BIDALI

Posta elektronikoz: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info

Posta arrunta: Argazki lehiaketa. Tolosaldeko eta Leitzaldeko Hitza Araba etorbidea 5, atzea • 20400 TOLOSA

Nahi izanez gero argazkiak ekar daitezke Tolosako HITZAREN egoitzara

Oinarriak www.tolosaldeko-hitza.info webgunean eskura ditzakezu

1. SARIA: Bazkari eder bat bi lagunentzako Alkizako Ostatuan.
2. SARIA: Leitzako Arakindegia jatekxan afari eder bat bi lagunentzako.
3. SARIA: Tolosako Richard argazki-dendako 8x21 prismaticoak.

Argazkien erakusketa egingo du, Tolosako ALDEZAHARRA elkarteak



bidali zure argazkiak!

argazki
hitza lehiaketa



IGERIKETA ▶

24 orduz igerian: Guinness errekor saiakera eta festarako aitzakia bikaina

Etzi Guinness errekorra ezartzen saiatuko da Carlos Peña; saiakera festarekin uztartzea izango du xede igerilari tolosarra egitekotan den erronkak



Andoni Imaz Kirol zinegotzia eta Carlos Peña igerilaria, errekor saiakeraren aurkezpenaren. LEIRE MONTES

CARLOS PEÑA ▶ IGERILARIA

«Kontuan izan behar da errekorra ez egitea ere posible dela»

Eguna gerturatzen ari den heinean, gero eta urduriago ageri da Carlos Peña tolosarra. Hala ere, baikor dago, beti ere Guinness errekorra ez lortzea ere posible dela garbi izanda.

Zer moduz zaude Guinness errekorra egiten saiatu aurreko egun hauetan?

Oraindik nahiko lasai nago, baina urduritasuna gehitzen ari da egunetik egunera. Ikusmin handia sortu du honek guztiak bai Tolosan eta baita hemendik kanpora ere; horrek presio handia suposatzen du niretzat.

Aparteko zaintzarik egiten ari



EDURNE AYUSO

al zara proiektu hau dela eta?

Egia esan, ez. Beti zaindu izan dut neure burua, eta orain ere berdin-berdin jarraitzen dut. **Zein entrenamendu ari zara egiten azken egunotan?**

Gero eta entrenamendu arinagoak egiten ari naiz. Pasa den astean Usabalgo kiroldegian zazpi orduz aritu nintzen igerian eta nahiko sendo ikusi nuen neure burua.

Zer azpimarratuko zenuke ekintza honetatik?

Jendeak eman didan babesa. Baina kontuan izan behar da errekorra ez lortzea ere posible dela.

NEREA LIZARTZA

«Egun bakar batean izan daitekeen esperientziarik gogorrena da». Horrela definitzen du Carlos Peña igerilariak etzi egingo duen Guinness errekor saiakera. Ekitaldi honekin Usabalgo kiroldegi berriak behin betiko zabalduko ditu ateak. Peñaren asmoa 24 orduz jarraian sorbaldez igerian aritzea da. Etzi eguerdiko hamabietan hasi, eta hurrengo eguneko ordu berean amaituko du erronka. Tartean beharrezkoak besterik ez diren atsedeen motzak —10 minutu gehiezin— egingo ditu, jateko eta edateko, besteak beste.

Duela urtebete hasi zen gutzia. Igerilari tolosarrak kiroldegi berria aurten amaituko zutela jakitean, eta Tolosaren 750. urteurrena zela eta, inaugurazio ekitaldia egiteko proiektu hau aurkeztu zien udal ordezkari. Guztien baietza jaso zuen. Urte honetan «jende askok elkartasuna eta babesa adierazi» diola azpimarratu du igerilari tolosarrak; kalera irten orduko jendearen animoak jasotzeak «ikaragarri indartu» duela ere gaineratu du.

Lehenengo aldia da Carlos Peña igerilariak horrelako saiakera bat egiten duena bere herrian bertan; horrek ilusio berezia egiten dio tolosarrari. Erronka honen zailtasunik handiena igerilekuaren txikitasuna dela adierazi du Peñak. Izan ere, aurreratzen den distantzia ez ikusteak zaildu egiten du, bere aburuz. Halaber, aipatzekoa da normalean ibaietan igeri egiten duela, eta ez igerilekuan.

Egun handia gero eta gertuago dagoela ikusita, urduritasuna pilatzen ari da Carlos Peñaren gorputzean; hala ere, lasai egoten saiatzen da. Era berean, errekorra ez egitea ere posible dela garbi izi nahi izan du behin eta berrero.

Proiektu honen gainean bi helburu azpimarratu ditu igerilariak. Bata, bere erronka, noski. Bestea, berriz, jendearen parte-hartzearekin batera, egun hori festa bihurtzea. Bi helburuok lortuz gero, «oso

pozik» geldituko dela adierazi du Peñak.

Jendearen partaidetza

Jendearen esku-hartzea ere bultzatu nahi dute ekitaldi honen antolatzaileek. Horretarako, herritarrei Peñarekin igerian aritzeko aukera eskaini diete. Eguneko protagonista erdiko kalean ariko da igerian; gainontzeko sei kaleak, berriz, honela banatuko dira: bat ikastetxeentzat, beste bat igeriketa elkarteentzat, hirugarren bat atletentzat eta triatletentzat, eta gainontzeko hirurak izena ematen duen edonorentzat. Modu honetan, errekorra iraungo dituen hogeita lau orduetan igerilari tolosarra ez da bakarrik egongo. Ikastetxeak eta elkarteak txandaka ibiliko dira igerian, aurrez jakinaraziko den ordutegi baten arabera. Gainontzeko kaleak, berriz, igeri egin beharreko metroen arabera zatituko dira. Baldintzetako bat da gutxienez 25 metro igerian egitea, eta gehiezin, oster, 1.000 metro. Jende guztiak, baina batez ere Carlos Peñak, lasaitasun osoz igeri egin dezan, kale bakoitzean igerilari bakar bat ariko da.

Egun berezi hau dela eta, antolatzaileek txano bat atera dute; larunbatean igerian aritu behar dutenak hori janztera behartuta daude. Bestalde, aletak erabiltzea baimenduta badago ere, monoaletak erabiltzea debekatu egin dute antolatzaileek.

Parte hartzen dutenek tximelera eran izan ezik, edozein igeriketa estilotan egingo dute igerian. Gutxienez sei urte izatea ere ezarri dute baldintza moduan. Bestalde, igerilari bakoitzak egindako distantzia liburu batean erregistratuta geldituko dela azaldu dute ekitaldiaren antolatzaileek. Diploma bat ere banatuko diete oroigarri gisara.

Guinness errekorra balekoa den ala ez esaten eta egiten dituen metroak neurtzen, Ur Azpiko Ekintzen Euskal Federazioko epaileak ariko dira etzi Usabalen.

Egun horretan kiroldegira jende asko hurbiltzea espero dute Erronka taldekoek. Guztien elkartasuna esker onez hartuko duela adierazi du Carlos Peña igerilariak.

Etzi Carlos Peñarekin igerian aritu nahi duenak izena emateko azken eguna gaur du. Bi modu daude horretarako; www.tolosa750.net/asmok_guinness.php helbidearen bidez edo Kultur Etxeko bulegoetara joanda. Bestalde, igerian aritzeko behin betiko ordutegia Interneten edo Kultur Etxean kontsulta daiteke.

SASKIBALOIA ▶

NOELIA LATABURU

Iazko denboraldian igoera lortu ostean, Interautonomiko Mailan ariko dira 2005-06 denboraldian Tolosako Aralar saskibaloitako taldeko seniorrak. Iragan abuztuaren azken astean ekin zioten berriz lanari Jimmy Perezen mutilek, eta etzi, larunbata, izango dute lehen hitzordua, Usabalgo kiroldegi berrian. Bertan EHU-UPV Araba taldea izango dute aurkari, 17:00etatik aurrera. Hasi eta bukatu, etxean egingo dute denboraldia. Bien bitartean, eta datorren urteko maiztzerarte, denboraldi luzea iragaritzen dute; Gipuzkoako, Arabako, Bizkaiko eta Errioxako (Espainia) taldeen aurka aritu beharko dute.

«Gogorra eta zaila» izango da maila mantentzea, taldeko delegatu eta jokalarik ohi Juan Mari Lasaren esanetan; izan ere, «beste taldeek maila altua dute, eta 16tik gutxienez 5 jaitxi egingo dira». Helburua beti ere maila mantentzea lortzea bada ere, batik bat «jubenetatik igo diren gazteei aukera ematea eta bidea irekitzea» izango dute xede.

Hamahiru jokalarik osatzen dute taldea, eta horietatik «hamabi etxeokoa dira». Denboraldi-aurrea ere «nahasia» izan dute jokalariek, berandu hasi eta kiroldegi berrian duela bi aste baino ez zirelako hasi entrenatzen. «Goiz heldu da lehen neurketa baina irabazten saiatuko gara», adierazi du Lasak.

Beste mailak ere prest

Seniorrekin batera, kadeteen, jubenetan eta infantilen taldeak ere aterako ditu Aralarrek aurtengo denboraldian. Infantilen deialdiak, gainera, arrakasta

«Ilusioz eta mantentzeko helburuz» daude Aralar-koak

Etzi, larunbata, jokatuko du bere lehen norgehiagoka Aralar saskibaloitako taldeak, Usabal kiroldegi berrian, 17:00etan; EHU/UPV Araba taldea izango du aurrez aurre



laz lortu zuen taldeak mailaz igotzea; aurten izan da aldaketarik, jokalariei dagokionez. HITZA

handia lortu zuen, hogeita bost gazte inguru eman baitute izena, 1992. eta 1993. urtean jaio-takoak, hain zuzen ere; bi talde osatuko dituzte, hala.

Hauek zuzentzen Vicente Otero, Ion Eizagirre, Goar Artetxe, Iker Otaño eta Juan Mari

Lasa ariko dira. Kadeteek ere badute euren taldea, Vicente Oteroren gidaritzapean. «Garrantzitsua da gazteen artean saskibaloia eredu grina piztea herrian, beraiei esker sortuko baita etorkizunerako harrobia» ere. Hori dela eta,

apustu berezia egin nahi dute aurten gazteen alde.

Ilusiorik behintzat ez zaie falta Aralarreko mutilei erronkari eusteko. Jendearen babesa jasotzea ere espero dute; «horretarako garaipenak eskuratuko behar direla dakigun arren».

TALDEA ▶

Tolosa Aralar taldeko seniorrak prest daude denboraldiari aurre egiteko. Erronka maila mantentzea izango dute, eta gorako postuetan mantentzea, gazteei bidea irekiz.

Jokalariek.

- ▶ Kike Konde, antolatzailea.
- ▶ Iñaki Garcia, hegalekoa.
- ▶ Ander Zulaika, eskolta.
- ▶ Mikel Gastearena, antolatzailea.
- ▶ Haritz Arana, hegal-pibota.
- ▶ Ioseba Zubeldia, pibota.
- ▶ Mikel Ibañez, hegalekoa.
- ▶ Kaiet Bidaurre, pibota.
- ▶ Alberto Zalduendo, hegalekoa.
- ▶ Ion Eizagirre, pibota
- ▶ Asier Pagola, hegalekoa.
- ▶ Fernando Mindegia, hegalekoa.
- ▶ Iñigo Larrañaga, antolatzailea.

Altak.

- ▶ Alberto Zalduendo, hegalekoa.
- ▶ Ion Eizagirre, pibota
- ▶ Asier Pagola, hegalekoa.
- ▶ Fernando Mindegia, hegalekoa.
- ▶ Iñigo Larrañaga, antolatzailea.

Bajak.

- ▶ Lander Lasa, hegalekoa.
- ▶ Iker Otaño, hegal-pibota.
- ▶ Iñigo Martiarena, eskolta.
- ▶ Juan Mari Lasa, hegalekoa.

Entrenatzailea. Jimmy Perez.

Talde delegatua.

- ▶ Jose Llorente.
- ▶ Juan Mari Lasa.

hitza txokoa ^{lagunen}

▶ HITZAREN HARPIDEDUN TXARTELAREKIN %5*-eko BEHERAPENA izango duzuzure EROSKETETAN

*Promozio hau ez da beste beherapenei gehituko eta eskura ordaindutako erosketetan bakarrik aplikatuko da

▶ Txartela HITZAREN harpidedun laguntzaileek eskuratuko dute

'Lagun ezazu HITZA laguntzen'

DENDA HAUEK HITZAREN LAGUNTZAILEAK DIRA

Avalon
osagaiak
korreo, 11 • Tolosa • Tel.: 943 67 51 02

ILUMINAZIOA
honekin

TOLOSA
Tel.: 943 65 24 30

kanikak

San Frantzisko, 21 • Tolosa
Tel.: 945 65 27 46

Gudari kalea, 5 • TOLOSA
Tel.: 943 65 04 62

ILUMINAZIOA

SHANTI KIROLAK

Rondilla, 11
TOLOSA
Tel.: 943 67 40 74

MUGAR

Nafarroa etorb. 16 • TOLOSA
Tel.: 943 65 56 85

LIZARRIBAR
OINETAKOAK
Arostegieta kalean
TOLOSA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZA laguntzen duten harpidedunen artean zozketak astero

GUTUN@K ▶

izena eta herria adierazi; HITZAK gutunak mozteko eskubidea du

Zizurkilgo
Gaztetxea ere
mehatxupean!

Beste behin ere argi geratu da Euskal Herrian gaztetxeen aurka dagoen jazarpena bai Espainiaren aldetik eta baita Gasteizko gobernuaren partetik ere. Hilaren 19an, arratsaldeko

laurak aldera, kale-jantzian zeuden bi ertzain eta uniforme-dun beste bi azaldu ziren Zizurkilgo Gaztetxera. Bertan pertsona bakarra zegoen, eta hau goitik behera arakatu ondoren, bere kirol poltsan ere miatu zuten, zentzurik ez zuten galdarak egiten zizkien bitartean. Honetaz gain, Gaztetxe kanpoan festetatik zeuden pegatina eta kartelak ere kendu zituz-

ten, eta barruan zeuden banderolak (*Euskal presoak Euskal Herrira* zioena, arrano beltzaren irudia) eta pegatinak kendu behar zirela agindu zion. Halaber, festetatik dagoen pankartari eta inguruari zenbait argazki atera zizkien.

Hau ez da Gaztetxean izan dugun ezuste bakarra, izan ere, festetan norbaitek bi bogzorgailu lapurtu zituen eta hutsak

zeuden garagardo upelak ere. Eta salaketa jarri eta hurrengo egunean jarri berria genuen atea puskatuta agertu zen.

Berriro ere ikusi da estatuek gaztetxeekiko duten jarrera, baina ez dezagun etsi, oztopo guztien gainetik defenda dituzgun gaztetxeak gu garelako herri honen geroa!!

URTZI REGUERO, ZIZURKILGO GASTE
ASANBLADAKO KIDEA ▶ ZIZURKIL

IRURA ▶

Ingeles ikastaroko
bilera gaur
gurasoentzat

Ingeles ikastaroan beren haurrak matrikulatu dituzten gurasoek bilera izango dute gaur arratsaldean. Ikastolan egingo dute bilera, 19:00-etan, eta ordutegiak zehaztea izango du helburu.

IRURA ▶

Pilota eskolan
izena emateko
aukera zabalik

Pilota eskolan izena emateko epea zabalik dago hilaren 28a arte. Mutilek xaren eta neskek palan eman dezakete izena. 30 euroko kostua du, eta izena emateko aurretik ordainketa egin behar da 2101 0227 01 0000089540 kontu korrantean. Ordainagiriarekin udaletxera (15:00ak arte) edo liburutegira joan behar da.

VILLABONA ▶

Endika Abril
Txapelketako
partida igandean

Villabonako Errebote plazan Endika Abril Errebote Txapelketako partida jokatu dute, 11:00etan, igandean, Uztaritxeko Kapito Harri eta Hardoiko Hardoytarrak taldeek.

IRURA ▶ HIRIGINTZA

Etxebizitzak eta industriagunea
bereiztuta utzi nahi ditu Udalak

Arau subsidiarioen berrikusketaren aurrekaria aurkeztu dute jendaurrean

IMANOL GARCIA

Herriko Ikastolan Irurako arau subsidiarioen berrikusketaren aurrekaria aurkeztu berri dute jendaurrean. Udalaz gain, zirriborroaren egileak izan ziren aldaketen berri ematen bileran bildu zen jende ugariari. «Etxebizitzetarako eremuak eta industriarako eremuak ondo bereiztuta egotea da berrikusketaren xedea», adierazi dio Marimi Ugalde alkateak Hirzari. Horrela, zirriborroan Zabalgunede deitu zaion lur-eremuan (Ibaiondo pasealekuaren bukaeran) etxebizitzak eraikitze-ko aukera izango da. Horietatik



Arau subsidiarioen berrikusketa aurkeztu zuten bileraren irudia. HITZA

%30 inguru babes ofizialekoak eta tasatuak izatea nahi du Udalak. Herriko beste leku batzuetan ere etxebizitzak egite-

ko aukera izango da. Guztira, 400 etxebizitza berri inguru egin ahal izango dira arau subsidiarioen aldaketekin.

Aldaketa horiekin, industria guztiak egun Villabona aldera (N-1 errepidearen bi aldeetan) zabaltzen den industriagunean izatea nahi da. Eremu horretan ere zenbait aldaketa egingo dira, pabilioien antolaketa hobetu eta trafikoaren mugikortasuna errazteko.

Berrikusketak beste hamar urterako arau subsidiarioak ezarriko ditu. Prozesuaren lehen fase honetan, aurrekaria kontsultatu eta iradokizunak egiteko aukera dute herritarrek, urriaren 10a arte. Bestalde, nahi duenak aukera izango du txostenaren egileekin bile-
rak egiteko.

MUGIKORTASUN ASTEA ▶



Neurketak egiten airtu ziren atzo Zizurkilan. HITZA

Hainbat herritan ekitaldi ugari egingo
dituzte gaur, Autorik Gabeko Egunean

ERREDAKZIOA

Mugikortasun Astea pixkana aurrera doa. Atzo, esaterako, Zizurkilgo Pedro Mari Otaño ikastetxeko haurrek Udaltzaingoaren laguntzaz herriko trafiko neurketak egin zituzten. Horrela, 60-70 dezibelioko zarata neurtu zuten (zarata maila ho-

rrek jendearengan urduritasuna sortzen du). Ibilgailu gehienetan pertsona bakar bat ikusi zuten eta 10 minututan 100 ibilgailu inguru eta 5 bizikleta zenbait zituzten.

Gaur Autorik Gabeko Eguna da Europa osoan. Eskualdeko hainbat herritan ekitaldiak antolatuta dituzte. Anoetan, Ikastolara txirindaz joateko geratuko dira. Egunean zehar maila ezberdinetakoko ikasleek hainbat ekintza burutuko dituzte. Asteasuko ikasleek neurketen emaitzekin muralak egingo dituzte, eta Txolarre irratiaren irratsea egingo dute. 20:30ean diapositiba emanaldia izango da ikusgai Joxean Azkue eta la-

gunekin. Iruran haur guztiak oinez joango dira Ikastolara eta berdin etxera bueltatzera. Neurketek buruzko muralak ere marraztuko dituzte. Tolosan, ikastetxe guztiak lotuko dituen ibilaldia egingo dute Lanera, nire kotxerik gabe lelopean. Arratsaldean Plaza Zaharrea eta Andra Mari plazan haurrentzako jolasak izango dira. Villabonan, Kale Berria itxita izango da ibilgailuentzat. Fleming eskolako ikasleek neurketak egingo dituzte. Eta Zizurkilan Ina Ruforen *Transeeuropea 2001* diapositiba emanaldia izango da ikusgai Atxulondo kultur etxean, 19:30etik aurrera.

iragarki laburrak ▶

LANA

Emakumea. Emakume euskalduna behar da arratsaldean. Deitu gaudetan: 943 11 72 85.
Tabernaria. Neska euskalduna


behar da taberna batean 4 orduz lan egiteko. 675 701 178.

Sukaldaria. Asteburuetarako eta oporren ordezkapena egiteko sukaldaria behar da. 943 69 19 33.

SALGAI

Furgoneta. Volkswagen Multiban TDI, 102 zaldikoa, SS-AW, egoera onean. Deitu 626 71 39 04ra (14:00etatik aurrera).

PILOTA ▶



Renobales eta Belloso izango dira eskualdeko ordezkarietako bi. L. M.

Eskualdeko ordezkarietza zabala lehian

Tolosaldeko eta Leitzaldeko hiru taldeek 13 pilotari aurkeztu dituzte

JULEN GOIKOETXEA

Tolosaldeko eta Leitzaldeko ordezkarietza zabalarekin hasiko da ostiralean DV txapelketa. Leitzan jokatu diren partidek irekiko dute aurtengo edizioa, eta jada ostiralek eskualdeko pilotariak eta eskualdeko taldeetan dabiltzanak ikusiko ditugu ekinean.

Senior mailan, lehenik, Mikel Belloso bidaniarrak, Keraltan laguntzarekin, Ibai Bengoetxea leitzararen eta Besonarten aurka neurtuko da.

Larunbatean, Errenterian, bi partida ikusi ahal izango dituzte pilotazaleek. Lehenengoan, Aurrera Saiazzen diharduen Zapirainek, Erauskin II. arekin, Muguruza eta Azanza izango ditu aurrean. Bigarrenean, Ugaitz Renobales alegiarrak Merinorekin jokatu du Oi-

natz Gonzalez eta Lopezen aurka. Horietaz aparte, Amezketako Zazpi-Iturri elkarteko Unai Legarreta, Joseba Baez, Unai Garmendia eta Koxme Elurbe lizartzarra, eta Leitzako Aurrera taldeko Mikel Olazabal aresoarra, Mikel Iriarte eta Ibai Bengoetxea leitzarrek ere ariko dira lehian txapelketa honetan.

PILOTARIAK ▶

Ondoko pilotariak hartuko dute parte, bi eskualdeko ordezkatzuz.

AURRERA-SIAIZ

Aurrelariak. Ugaitz Renobales, Mikel Belloso eta Mikel Olaetxea.
Atzelariak. Jabi Oteiza, Ruben Zapirain eta Koldo Galarraga.

ZAZPI-ITTURRI

Aurrelariak. Koxme Elurbe eta Joseba Baez.
Atzelariak. Unai Legarreta eta Unai Garmendia.

AURRERA

Aurrelariak. Mikel Olazabal.
Atzelariak. Ibai Bengoetxea eta Mikel Iriarte.

ALEGIA ▶

Emaiza onak eta txarrak lortu dituzte Intxurrekoek

Lurraldekako en garaipea eta gazteen porrota utzi ditu asteburuak

ERREDAKZIOA

Asteburuko emaitzak gazi-gozaok izan dira Intxurrekoentzat. Lurraldekako en gande arratsaldean jokatu zuten Donostian Axular taldearen aurka, eta denboraldia emaitza on batekin hastea lortu zuten. 0-2koak argi erakusten du aurretik Intxurrekoek igoera dutela helburutzat. Asteburuan, atsedean hartzea tokatuko zaie alegiarrei.

Ez dago, ordea, gauza bera esaterik gazteen inguruan. Joxean Otañoren mutilek 1-0 galdu zuten larunbat arratsaldean Andoainean Euskalduna taldearen aurka. Denboraldiko lehen partidaren lortutako garaipenak ez zuen jarraipenik izan larunbatean. Etzi jokatu dute, 16:30ean, etxean, Amaikak Bat taldearen aurka.

Kadeteek asteburuan jokatu dute urteko lehen partida. Aurreko asteko atsedean jardunaldiaren ostean, igandean izango dute euren kalitatea erakusteko aukera, Donostiako Jasonbaso zelaietan, Lengokoaren aurka.

ALEGIA ▶

Zazpigarren mendi irteera egingo dute igandean

ERREDAKZIOA

Alegiako Mendi Asanbladak urteko zazpigarren irteera egingo du igandean. Zumaia eta Deba arteko ibilbidea iragarri dute. Horretarako, goizeko zortzietan irtengo dira Alegiatik autobusez Zumaia aldera, eta ondoren handik ekingo diote ibilbideari. Itzulerara 17:30erako dago iragarritako, beti ere eguraldiaren arabera, azaldu dutenez. Autotolazaleek jakinarazi dutenez, gutxienez 20 pertsona bildu beharko dute autobusa antolatzeko.

ZALDI LASTERKETAK ▶

Lan bikaina egin dute eskualdekoek Zizurkilen

Urteko zazpigarren proba jokatu zuten; larunbatean, azken lasterketa, Deban

ERREDAKZIOA

Igandean denboraldiko zazpigarren zaldi lasterketa jokatu zen Zizurkilen. Hamalau zaldun lehiatu ziren garaipenaren bila, baina Igor Castañaresek lortu zuen lehen postuan helmugaratzea, Hegohaize zaldiarekin. Bere atzetik, eskualdeko lehen ordezkaria sailkatu zen. Iñaki Izagirre asteasuarrak eta bere zaldi Fikusek bigarren postuan amaitu zuten lasterketa. Podiuma osatuz, eskualdeko beste zaldun bat izan genuen. Lur zaldiarekin, Asier Mujika zizurkildarrak bete zuen ohorezko

lehen hiru postuak betetzeko falta zena. Laugarren postuan Garikoitz Lasa bidaniarra sailkatu zen, Orkatz zaldiarekin, eta bosgarren lekuan amaitu zuen Txomin Zubiak, Gorri zaldiarekin.

Hiru tanda jokatu zituzten finala jokatu aurretik, eta aipatutako zaldunek lortu zuten azken lasterketarako txartela. Bildutako jende mordoak lagunduta, eskualdekoek lan ona burutu zuten. Denboraldiko azken lasterketa jokatu dute larunbatean, 13:00etan, Debako hondartzan. Horren ostean, denboraldiko onenek final nagusia jokatu dute.

IKAZTEGIETA ▶

Saiazek antolatutako ikastaroak hastear

Saiaz Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak antolatutako, Helduen Eskolak ikasturte berriari ekingo dio. Urriaren 3an, astelehena, hasiko da kurtso berria balio anitzeko gelan. Klaseen orduetgia 14:30etik 16:30era izango da, eta astelehenetan soilik izango dira eskolak. Helduen Eskola horretan euskara, gaztelania eta matematika bezalako ikasgaiez gain, memoria lantzeko testak eta informatikaren inguruko eza-gupenak, ordenagailuarekin idazten, ikasiko dituzte. Bestalde, Saiaz Mankomunitateak ere eskulan ikastaroa eskainiko du. Urriaren 4an hasiko dira saioak, eta orduetgia 14:30etik 17:00etara izango da; saio guztiak asteartean izango direla jakinarazi dute.

ALEGIA ▶

KZguneko tutorearen bisita, bihar

Bihar, ostirala, KZgunean tutorearen bisita izango da, 16:00etatik 20:00etara. Bestalde, biharkoan ere, *Etzetik eros ezazu* mintegia eskainiko dute 17:00etatik 19:00etara, toki berean.

IKAZTEGIETA ▶

Zabor bilketa tasa ordaintzeko epea zabalik da

Ikaztegieta Udalak jakinarazi duenez, herritarrek lehen seihilabeteko zabor bilketa tasa ordaintzeko aukera dute. Ordainagiriak borondatezko epean ordaintzeko urriaren 1era bitartean jarriko egongo dira. Ordaintzeko azken eguna urriaren 19a izango da. Helbideratuta daudenak urriaren 19an konbratuko dira, eta besteak, al-diz, banketxean edo udal-txean ordaindu behar dira. Bestalde, Udalak jakinarazi duenez, bihar, 17:00etan, hitzaldi bat izango da liburute-gian, doan, Kutxaren laguntza. Hitzaldiaren gaia *testamentuak eta jarunspenak* izango da. Herritarrei gonbita luzatzen die Udalak biharko hitzaldia gerturatu eta horrelako gai baten inguruan gehiago jakiteko.

ZUZENKETA ▶

Astearteko alean, Josu Telleria epailea billabonatarra zela argitaratu genuen. Epaile billabonatarra Zigor Leunda da, Telleria bilbotarra baita. Leundari eta Telleriari eta baita irakurleei ere barkamena eskatzen diegu, beraz lerro hauetatik, eginiko okerra dela eta.

TOLOSALDEKO HITZA.INFO

'Zeuk idatzi'. TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN webgunek atal berria du, *Zeuk idatzi* izeneko. Eskualdeari buruzko albisteak idatz ditzakezu bertan. Anima zaitzite!

IBARRA ▶ EUSKARA



Enekoitz Esnaola eta Consuelo Romeo sinadura ekitaldian, atzo, Ibarra udaltxean. I. TERRADILLOS

Hitzarmena sinatu du Udalak HITZArekin

2005, 2006 eta 2007 urteetan biztanleko 3 euroko diru laguntza emango dio Udalak eskualdeko egunkariari

IÑIGO TERRADILLOS

Consuelo Romeo Ibarra al-kateak eta Enekoitz Esnaola TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAREN enpresa argitaratzaile Tolosa Herria Hedabideak-eko

lehendakariak hitzarmena sinatu zuten, atzo, Ibarra udaltxean egindako ekitaldian. Hitzarmen horren arabera, datozen hiru urteetan, hau da, 2005, 2006 eta 2007 urteetan, biztanleko hiru euroko diru la-

guntza emango dio Udalak HITZARI.

HOIrela, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZA euskararen erabilera areagotzeko lanean ari dela, eta honen guztiaren onuradun Ibarra herria dela

bermatzen da hitzarmenaren. Halaber, HITZAK egiten duen lanari behar bezalako tratamendua ematen jarraitzea eta, bide batez, bere geroa ziurtatu eta sendotzea komenigarria dela ikusten du Udalak hitzarmenaren zehazten denaren arabera. Helburuei dagokionez, TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO HITZAK eta Ibarra Udalak elkarlanean hedabideen alorrean euskararen erabilerearen normalizazio lanak bideratzea litzateke azpimarragarria.

Consuelo Romeo azaldu zuenez, «udaletxearen eta HITZAREN arteko harremanak sendotzeko oso garrantzitsua da sinatu berri dugun akordioa»; halaber, «horrelako herri hedabideak babestu egin behar dira, izan ere, urrutian gertatzen diren gauzetaz jakiten dugu askotan eta gertukoaz ez gara ohartu ere egiten eta horretan HITZAK garrantzia handia dauka, inguruan gertatutako ederki islatzen duelako», adierazi zuen.

Bestalde, Enekoitz Esnaolak eskerrak eman zituen diru-laguntzarengatik, eta hitzarmen hau sinatzea «oso garrantzitsua» dela esan zuen. Gaineratu zuenez, HITZA bezalako proiektu batek «erakunde publikoen inplikazioa» behar du, «euskarak aurrera egin dezan, komunikabideen bidez euskararen normalizazioaren bidean pausoak eman ditzagun».

IBARRA ▶ FUTBOLA

Etzi ekingo dio Ligari areto futbol taldeak

Pol, Mauro eta Sinoe dira berrikuntzak; Cristian eta Victor, berriz, bajak

I. TERRADILLOS

Etzi, hilaren 24an, ekingo dio Ibarra areto futbol taldeak denboraldi berriari, Logroño-oren aurka; taldea irrikaz eta gogoz dago jokatzeko, eta zaleei emaitza onak emateko.

Jokalariei dagokionez, Cristian eta Victor ez dira aurten taldean izango, lehenak Xotan jokatu duelako, eta bigarrenak Ceramicas Nogaes taldean. Berrikuntzak ere badaude; izan ere, Villabonako Transportes Lacunza taldetik datozen Sinoe Ibarra jokatu du, azken bi denboraldiak EHUn jokatu duen Mauroekin batera.

Aurtengoan, taldea indartuko dutenen artean izango da

ere Pol brasildarra; orain artean ordezkaririk bezala aritu da, eta lau urte eta gero futboleko jokatzeko erabakia hartu du. Oso garrantzitsua izango da taldearentzat; izan ere, eskarmentu handiko jokalaria da, eta Atletico de Madril bezalako talde handietan jokatuakoa da.

Gainerakoei dagokionez, esan behar da Blancos eta Prados jokatzeko moduan daudela lesionaturik izan eta gero; ezin gauza bera esan Carrerari buruz, honek hilabete beharko baitu erabat osatzeko. Horiez gain, Zabala eta Sanz atezainek eta Lander, Unai, Hautsi, Fernando, Ustaritz eta Loizun jokalariek osatuko dute aurtengo Ibarra areto futbol taldea.

LEABURU-GAZTELU ▶ KULTURA

Belardo belar metaren istorioak gaur ikusgai

Leaburun 17:30ean izango da ipuin kontaketa saioa, eta Gaztelun 18:30ean

ERREDAKZIOA

Galtzaundi Euskara Taldeak Tolosaldeko hainbat herrietako udalekin elkarlanean, ipuin kontaketa saioak antolatu ditu. *Belardo belar metaren ibilerak* izenburupean, Iñaki Martiarenaren eskutik marrazkien bitartez eskainitako ipuin kontaketak izango dira. Gaur, 17:30ean, Leaburun izango da lehendabiziko saioa, gazte lokaleko gelan; eta, jarraian, Gaztelun izango da ipuin kontalaria, 18:30ean, udal liburutegian. Leaburuz eta Gazteluz gain, udazken honetan, Belauntzan, Amezketan, Baliarrainen, Iruran eta Hernialden antolatu dituzte saioak.



Belardo belar meta. HITZA

Emanaldi hauek adin gutti-tako haur eta helduei zuzendutako izango dira. Bertan ipuinak eta istorioak kontatuko ditu Mattinek kolore eta marrazkien bitartez, eta Belardo pertsonaia aurkeztuko die haurrei bere saioetan.

GIZARTEA ▶

Gaztetxeei eta gazte asanbladei deialdia

I. TERRADILLOS

Euskal Herriko Gaztetxe eta Gazte Asanbladen arteko gida bat osatzen ari dira elkarlanean, non historia, bitxikeriak, data garrantzitsuak, informazioa, materiala, argazkiak, helbidea, kontakua... bilduko dituzten, eta Durangoko Azokarako liburu formatuan ateratzeko asmoa dute.

Uneotan datu bilketarekin ari direnez, Tolosaldeko Gaztetxeei eta Gazte Asanbladei deialdia luzatzen diete formularioak bete ditzaten edota bereien datuak posta elektronikoz bidali ditzaten, etzi baino lehen. Datuak gida@gaztesarea.net helbidera bidali beharko dira. Gidari buruzko informazio gehiago www.gaztesarea.net/gaztetxegida webgunean topatu ahal izango da.

TELEFONOAK ▶

Larrialdiak. ((112)) Osasuna.

▶ **Alegialdea.** Osasun z.: 653212
▶ **Anoeta-Alkiza-Hernialde.**

Medikua: 65 23 39

▶ **Asteasu.** Medikua: 692423
▶ **Baliarrain.** Medikua: 889003

▶ **Berastegi-Elduain.** Medikua: 683361

▶ **Bidegoian.** Medikua: 681134
▶ **Ibarraldea.** Osasun ebea:

672411

▶ **Ikaztegieta.** Medikua: 653329

▶ **Irura.** Osasun zentroa: 690720

▶ **Leitza.** Osasun z.: 948 510800

▶ **Orendain.** Medikua: 655595

▶ **Orexa.** Medikua: 682228

▶ **Tolosa.**

▶ Anbulatorioa, larriald: 461111

▶ San Esteban: 006800

▶ Gernikako arbola: 006900

▶ Amarozko dispen.: 672637

▶ Asunzioz klinika 675799 -

67 53 90 (larrialdiak)

▶ **DYA:** 672536

▶ Gurutze Gorria: 674888

▶ **Villabona.** Anbulat.: 006970

▶ **Zizurkil.** Aiztondo zerb: 693930

Garraioak.

▶ Renfe: 902 24 02 02

▶ Donostiako autobusa: 361740

▶ Tolosaldea bus: 650621

▶ Leitzaran autob.: 948 221015

▶ **Taxia:** 670420

▶ **Taxia (Leitza):** 608 873016

Besterik.

▶ Ertzaintza: 538820

▶ Tolosa-Udaltzaingoa: 675858

▶ **Tolargi:** 650016

▶ Iurramendi egotza: 670325

▶ Tolosa gasa: 675320

LEITZA ▶

Irusu gaur irekiko dute, festa ttiki bat eginez

Etxea erabat berritu ondoren, jate-txoa zabalik izanen da jabe berrien eskutik

J. ASTIBIA

Itxita demboraldi bat bazerman arren, Iruso etxean jate-txoa irekiko dute gaur bertan, 19:30etik 21:30era atekak zabalduko baititu eta «nahi duen guztiari ongietorria egin eta gure etxea ikusteko aukera izanen du», diote bertako jabe berri diren eta aurrerantzean han bertan lanean ariko direnek.

Leitzalarrerako bidean dago. Kanpotik eta barrendik aldaketa dezente egin ondoren, bihar bertatik jate-txoa zerbitzua irekita egonen da, eta urrirako ere ordutegi berezia iragarri dute, 06:00etatik aurrera irekiz.

LEITZA ▶

Larrainek batzarra egingen du gaur 20:00etan

J. ASTIBIA

Gaur iluntzean, 20:00etan, Larrain herri plataformak batzarra egingen du, Aurrera elkarteko egoitzan.

Bertan landuko dituzten gaiak honako hauek dira: «Egungo egoera, aurrerantzeko egitasmoak eta beste-lako gaiak». Bertara azaltzeko dei berezia egin diete plataformari beren atxikimena eman izan dioten herritarrei.

LEITZA ▶ EUSKARA

Euskara bazen, bada eta bihar izateko, ikasi egin behar da

Urtero bezala, euskara ikastaroak emanen ditu Leitzako IKA euskaltegiak; matrikula egiteko tenorea aillatu da



Leitzako euskaltegian matrikulatzeko epea irekita dago. JAIONE ASTIBIA

JAIONE ASTIBIA

«Euskara, atzo bazen, gaur bada eta bihar izanen da». Haxe dio aurtengo matrikulazio kanpainan IKA euskaltegiak aukeratu duen esaldiak. Egiazkoak dira hor ageri direnak, eta itxaropentsuak ere bai, geroari dagokionez. Hain zuzen, gure hizkuntzaren egungo egoera hobetzeko eta biharkoan osasuntsu izateko, egungo euskal hiztunen konpromisoa beharrezkoa den bezala, hiztun berriak izateko, derrigorrezko.

Horretan aritzen dira Leitzako IKA euskaltegian, batzuen eta beste laguntzaile eta erakusle izanez. Eskaintza egina dute dagoeneko. Orain, euskaraz ikasi, maila hobetu... nahi dugunon txanda da: aukeratu eta euskaltegian matrikulatzeko.

Taldeak osatuz joan eta bertan diharduten lau irakasleak urriaren erdi alderako hasiko dira eskolekin, Leitzan ez ezik, Betelun, Lekunberrin eta, aurretik Jaunsaratsen beharrez, Aizarotzen, euskaltegian Hirtzari zehaztu diotenez.

Guztietan lekuan lekuko eskariaren ariorako ikastaroak emanen dituzte: «maila guztietako euskara ikastaroak» dituzte eskura, eta «ordutegiak ere ikasleen aukeran» uzten dituzte, erraztasun guztiak eskainiz. Ohiko ikastaro hauekin batera, bereziagoak ere emanen dituzte, «EGA ateratzeko ikastaroa» kasu. Hauek guztiek ikasturte osoko luzapena dute.

Baina badituzte 20 ordukoak diren beste batzuk ere, «gurasoentzako den ikastaroa» bat: maiz seme-alabei eskolako la-

nak egiten laguntzerakoan sortzen diren ezin ulertuak sahiesten laguntzeko bideratutakoa. Orohar, euskal hiztun orok egin ditzakeenak izanik, beste hiru ikastaroren berri ere eman dute: *Euskaltzaindiaren araugintza*-ri buruzkoa bata, *Akatsak zuzentzen*, beste, eta hirugarren bat, *Erregistro ez-formalak* izendatu dutena. Hain zuzen ere, azkena aiatu diren bi ikastaro hauek parte hartzea animatu nahiko lukete bertako jendea. Gure hizkuntzaren kalitatea hobetzeko aukera izan litezke: «Euskararen bizitasuna hizkuntza formalak ematen ez dituen hizkuntza mailak lantzen dira. Hizkuntza naturala eta berezkoa ezagutu eta ikasteko, oso ikastaro politak dira hauek, biziak», zioten. Bertako jendeari asko gustatzen zaiona omen da, batez ere, erregistroena: «Non gauden, norekin gauden, eguneko zer ordutan... hizkuntza desberdina da, eta unean unerako esamoldeak badira, baina egunetik egunera galtzen ari direnak. Horixe lantzen da».

Beraz, euskara ikasteko edo hobetzeko eskaintzarik eta aukerarik ez dagoenik ezin esan daiteke, bistakoa denez, eta matrikula tasen inguruan ere, orduen ariora aldatzen bada ere, «merke» egin daitekeela ziurtatu dute. IKA euskaltegiak Leitzan duen egoitzara joanez —udaletzeko aurreneko solairuan— edo 948 610 776 telefono zenbakira deitu besterik ez da egin behar eta jakinahi guztiak aseko dituzte.

LEITZA ▶

Ateka Beltzan batzarra dute bihar herriko eragileek

Etxearen erabileraz proposamenak plazaratu eta eztabaidatuko dituzte

J. ASTIBIA

Bihar, ostirala, 20:00etatik aurrera, herriko eragileek batzarra egingen dute Ateka Beltzan, hain zuzen ere erai-kin horren erabilpenari dagokionez, taldeek dituzten proposamenak azaldu, horien inguruan hitzegin eta erabakitzeke.

Erabilera «denen artean erabakitzeke» dela dio Ateka Beltz Gaztetxeak, bilerarako deialdiaren egileak, eta horretarako «momentua» ere iritsia dela iritzi. Egun, Ateka Beltzako lehen solairuan beraiek dauden arren, «talde bakoitzak bere txokoa» izateko aukerak badaudela diote, «herriko behar ezberdinei erantzuteko», arrazoi zuzen.

Horrela, bere garaian Ateka Beltzaren erabilerari buruz egin zen inkestari erantzun eta beren proposamen eta iradokizunak egin zituzten herriko eragileei —kultura, gizarte, hezkuntza, kirola, nahiz politika arlokoak denak—, batzar honetan parte hartzeko eskaera egin diete, «bakoitzak bere proposamenak ekarri» parte hartzeko ere, etxearen erabilera «lehenbailehen» zehaztu joatea komenigarri ikusiz.

Goian aiatatutako inkesta hartan, Ateka Beltzaren erabileraz galdeginda, taldeen gehiengo zabalak bertan gizarte zentroa egiteko proposamena egin zuen, kultur etxe, gaztetxe edota eguneko zentroa egiteko proposamena ere izan zirelarik.

- ▶ hilberriak
- ▶ urteurrenak
- ▶ eskertzak

Gipuzkoan
50.000
etxetara

ESKELAK
19:00ak arte hartzen dira
Telf.: 943 65 56 95
tolosaldean@tolosaldeko hitza.info

HITZA guztietan prezio beragatik



AGENDA ▶

DEIALDIAK

Anoeta. Tutorearen bisita KZgunean, 16:00etatik 20:00etara. Tarte horretan *Banaketa zerrendak* izeneko mintegia eskainiko dute.

Gaztelu. *Belardo belar metaren ibilera.* 18:30ean, Udal liburutegian, Iñaki Martiarenaren eskutik.

Leaburu. *Belardo belar metaren ibilera.* 17:30ean, Gazte lokaleko gelan.

Tolosa. *Jarri sasoiari korrika* liburuaren aurkezpena. 19:00etan, Usabal kiroldegian.

Tolosa. 1955ean jaio eta aurtun 50 urte betetzen dituztenen festa ari dira prestatzen azaroaren 12rako. Informazioa: 650 69 35 40 (Santi Beloso), 630 90 80 45 (Joaquin Odrizola) eta 669 82 88 18 (Angel Garcia) zembakietan.

Villabona. Eresargi Ttipik haur abeslariak behar ditu. Izena eman nahi duenak Kultur Etxera jo behar du bihar, 17:30etik 19:00etara.

ERAKUSKETAK

Alegia. Mertxe Etxeberriaren lanak. Hilaren bukaera arte, Jubilatuen tabernan.

Tolosa. Txaro Medranoren erakusketa. Hilaren amaiera arte, Lanbroa tabernan.

Tolosa. Rosa Maria Ruizen margolanak, Sorron enmarkazio dendan.

GUARDIAKO FARMAZIAK

Gaur
Ibarra, Ugarte, M. T. Euskal Herria, 46. 943 67 32 74.
Leitza, Larraia, M. I. Elbarren, 95, 112.

IRRATIA

Txolarre (107,5; 101.2 FM)

11:00. 14:00ak arte, *Tolosaldeko Ahotsa*. Eguraldia, Hitzaren errepaso, albisteak, oharrak...
12:00. Asteasuko Pello Errota ikastetxeko haurrekin solasaldia Mugikortasun Asteaz.
12:15. Autorik Gabeko Eguna Tolosaldean. Antolatutako ekitaldiak.
12:20. Agenda.
12:30. Irurako sanmielak 2005, Marimi Ugalde alkatearekin eta Alex Lasa Kultur teknikariarekin.
13:00. *Izkutuko koloreak* irrati nobela.
13:15. Lehiaketa eta disko eskainiak.
19:00-21:00. *Tolosaldeko Ahotsa*.
22:00-23:00. *Street Noise* musika saioa.

▶ HITZA ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta irizien erantzukizunik.

Budapest eta Getaria

HITZA ARGAZKI LEHIAKETA ▶ Budapesten eta Zarauzko hondartzan hartutako irudiak dira hauexek; bihar da argazkiak jasotzeko azken eguna



BUDAPEST ▶

Xabier Jauregi (Tolosa).

Hungariara joan da oporretan Xabier Jauregi tolosarra. Hango argazki hau bidali digu: «Aupa! Gu Budapestean izan gara oporretan, argazkian ageri dena heroiari plaza deitzen dutena da. Plaza honetan Atila eta Uno-ak daude erdialdean; eta atzean, berriz, Budapesten alde borroka egin zuten hainbat errege».

GETARIA ▶

Juanjo Esnaola (Anoeta).

Juanjo Esnaola anoetarrak ez du oporrik izan udan, baina argazkiak ateratzeko tarterik hartu du, eta lehiaketan parte hartzeraz animatu da. «Zarauzko hondartzatik Getariari ateratako argazkia da hau», azaldu digu egoitzan, irudiak ekartzerakoan.



AGURRAK ▶



URTE ASKOAN
Javier Atxukarro (Berastegi). Urte osoan zaunka ta zaunka, oihu ta Zorionak ama, Esther, Soraya eta Bakarboxen partetik. Ongi pasa.



ZORIONAK, OIHANA
Urte osoan zaunka ta zaunka, oihu ta oihu, muku ta muku. Nik ere asko-asko matte zaitut. Lur (San Esteban-Tolosa).



ZORIONAK
Segi horrelako gazte eta polit, amona Mabus. Familiaren partetik.

HITZA, zorion agurren

Urtebetetzak, urrezko ezteiak, **tartea** ezkontzak, jaioberriak... zoriontzeko, etorri:

HITZAren egoitzara:
Araba etorbidea, 5 behe - TOLOSA
Udaletxeko bulegoa - LEITZA

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago. Mila esker!